



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

2021eko URTARRILAREN 26ko OHIKO OSOKO BILKURA **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeitabateko urtarrilaren hogeitaseiko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Joana Estanga Urroz

Ezin etorri izana adierazi du: Francisco Javier Erro Remirezek.

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren, gai-zerrendako gaiei ekin zaie, hona hemen:

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2020ko abenduaren 1ean egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek aldeztu aurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

2.- Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Honako jakinarazpen ofizialen informazioa eman da, osoko bilkurak horien berri izan dezan:

- 23/2021 Ebazpena, Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariarena, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, basogintzari eta ingurumenari dagokienez, Artzibarko Itoizko urtegiak ukitutako bideak egokitzeko eta hobetzeko (I. fasea)

3.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- 2020ko azaroaren 5eko 17/2020 alkate ebazpena, Arrietako San Lorenzo karrikako 30 zenbakiko etxebizitzako tximinia konpontzeko obra baimena ematen duena.
- Alkatetzaren 18/2020 Ebazpena, 2020ko azaroaren 27koa, Urizko 23. poligonoko 30. partzelaren jatorrizko finka bereizteko eskaeraren aldeko partzialki txostena ematen duena.
- Alkatetzaren 19/2020 Ebazpena, 2020ko abenduaren 1ekoa, Artziko Jauregia elektrizitatez hornitzeko goi-tentsioko lurpeko linearako eta transformazio-zentrorako obra-lizentzia ematen duena.
- Alkateordearen 20/2020 Ebazpena, 2020ko abenduaren 18koa, Agoizko musika-eskolan matrikulatzeko laguntza eman eta ordaintzen duena.
- Alkateordearen 21/2020 Ebazpena, 2020ko abenduaren 31koa, Ibarreko ostalaritza- eta ostatu-jarduera ekonomikoen titularrei diru-laguntza eman eta ordaintzen diena.

4. Nagoreko ur-biltegirako araztegia

Nagoreko ur-biltegian izandako arazoari irtenbidea emateko Udalak eta Nagoreko kontzejuak bilerak egin zituzten Toki Administrazioarekin eta Osasun Publikoarekin.

Irtenbiderik egokiena burdina eta manganesoa kentzeko araztegia jartzea zela adostu zen.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretan partida ekonomiko bat onartu da, zeina Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiari esleitu baitzaio. Partida hori oso-osorik erabiliko da araztegia instalatzea eta martxan jartzea finantzatzeko.



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

Horretarako, eta kontuan hartuta edateko uraren hornidura oinarrizko zerbitzua dela udalerrietan, eta horrek osasun publikoan eta herritarren ongizatean dituen ondorioak kontuan hartuta, lehentasunezko eta presazko obratzat jotzen da. Hori dela eta, Udaleko Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

LEHENIK: Artzibarko Udalari zuzeneko diru-laguntza emateko hitzarmen arautzailearen proposamena onartzea eta alkate jauna gaitzea sina dezan.

BIGARREN: Hornidura-kontratua lizitatzeko, agiriak idazteko, memoria teknikoa egiteko eta abarretarako beharrezkoak diren izapideak hastea.

5.- Lakabeko haurrak Garraldako eskolara joatea

Lakabeko kontzejuak Udalari jakinarazi dio Lakabe Garraldako eskola-zonakatzearen barne izateko eskaera ofizialki izapidetu behar dela.

2005etik Lakabeko haur guztiak Garraldako eskolara doaz eta bere gain hartu dituzte garraio eta jantokiko gastuak.

Hezkuntza Departamenduarekin bilerak egin ondoren, adierazi da posible dela bailara beraren barruan herri batzuk eskola-eremu batean egotea eta beste batzuk beste eskola-eremu batean.

Ikusirik Lakabeko kontzejuaren eskaera eta Udalak badakiela Lakabeko haurrak Garraldako eskolara doazela duela urte anitz, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatzea eskola-eremua aldatzea, Lakabe Garraldako eskolako eremuan sartzeko.

6.- Ahuntz basatuak

Epizootiologiako Negoziatuak Udalari jakinarazi zion Gorraitz, Lakabe eta Artozkiko eremuetan basatutako ahuntzak zeudela, eta Udalak horren arabera jarduteko betebeharra zuela.

Nafarroako baso-ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legeak eta haren erregelamenduak (otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretua, 126.3 artikulua) honako hau xedatzen dute: "Tokiko agintaritzak ganadua atzematerik ez duenean, udalbatzaren alde zuzeneko akordioarekin, bandoa

argitaratuko du, eta hogeit eguneko epea emango du ganaduaren jabeak edo jabeek menditik ken dezaten. Epe hori igarotakoan, eta Udalbatzak beste erabaki bat hartu ondoren, azienda animalia basatu gisa deklaratu du, ehizarako. Erabaki hori udalerriko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, hortik aurrera, ehizarloko agintaritzaren eskudunaren baimenarekin, uxaldiak egin ahal izango dituzte, ehizatze eta harrapatze.

Abenduaren 15ean, Alkatetzaren Bandoa argitaratu zen udaletxeko iragarki-oholean, bai eta udalaren webgunean eta sare sozialetan ere, eta hogeit eguneko epea eman zitzaion jabeari menditik ken zitzan. Epe hori igarotakoan, Udalbatzak animalia basati izendatzeko erabakia hartuko zuela adierazi zen, ehizarako.

Ezarrirako epea iraganda, aho batez erabaki da:

LEHENIK: Gorraitz, Lakabe eta Artozkiko eremuetan ehizarako kontrolik gabe dauden ahuntzak animalia basatitzat jotzea, ehizaren arloan eskumena duen agintaritzaren baimenarekin.

BIGARREN: Erabaki hau Udalaren iragarki oholean argitaratzea.

HIRUGARREN: Nafarroako Gobernuko Epizootiologia Negoziatuari eta Ehiza Atalari erabaki hau jakinaraztea.

7.- Alkatetzaren txostenak

Alkateak honako informazioa eman du:

- Bilera Lurraldearen Kohesioko kontseilariarekin eta Toki Administrazioako zuzendari nagusiarekin, urtegiak eragindako konpentsazioei buruz, eragindako udalerrietako gainerako alkateekin batera
- Cederna-Garalurren urteko txostena, besteak beste honakoez aritu baitziren: Cedernaren kontuen egoera orokorra, 2020an gauzatutako LGPko proiektuak, LGPko aurreikuspen berriak, beste diru-laguntza batzuen aurreikuspena, hala nola Pirinioetako Plana edo despopulazioaren aurkako borrokarako libreki erabaki beharreko laguntzak. Kudea-go aplikazio berria ere azaldu zen, Nafarroako Proiektu Estrategikoen bidez finantzatua, Pirinioetako bizilagunen artean autoa partekatze, prestatzen ari den Garraio Plan berria, Pirinio-aurreko langabezia-egoera, eta abar.
- Desfibriladoreak erabiltzen ikasteko ikastaroa: 40 pertsonentzako ikastaroa egiteko aurrekontua eskatu da. Hasiera batean zortzi pertsonako taldetan egingo da, ahal dela larunbatetan, eta pertsonako prezioa 55 € da. Puntu honetan, gainerako zinegotziei eman zaie hitza, eta kontzejuei bost laguneko



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA
31438 NAGORE (Navarra-Nafarroa)

zerrenda eskatzea erabaki da (ahal dela, herrian etengabe bizitzen direnak), ikastaroan parte hartzeko prest. Udalak formakuntza osoaren kostua bere gain hartzea erabaki da.

8.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa

Maria Isabel Cañada zinegotziak Pirinioetako Mahaiaren zenbait bileren berri eman du, proiektu estrategikoekin, Lursarearekin eta Cedernarekin elkarlanean dokumentu bat egin da Legebiltzarrari aurkezteko. 2005eko datuekin egindako isuriei buruzko txostenaren berri ere eman zuen, klima-aldaketaren aldeko Alkatetzen Itunean isurketak murrizteko hartutako konpromisoa betetzeko oinarri gisa erabiliko dena.

Garoa Gartziandia zinegotziak jakinarazi du Asisko Urmenetaren "sugarren Mende" liburuaren aurkezpena, azken orduan bertan behera utzi behar izan zena, azkenean otsailaren 27an egingo dela. Udaberrian Artzibar Haranean egin nahi den Arte Jaialdiaren berri ere eman du; horretarako, antolatzaileek laguntza eskatu dute Haraneko artistekin harremanetan jartzeko.

Clara Ruiz de Gauna zinegotziak Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin egiten ari den Genero Indarkeriaren Protokoloaren berri eman du. Horri buruzko hurrengo bilera otsailaren 9an izango da, eta haraneko kultur, kirol eta abarreko elkarteak gonbidatuko dituzte.

Gainera, "Udalean Online ekitaldiak egiteko protokoloaren" proposamena aurkeztu du, eta bilera birtualak eraginkorrak izateko gutxieneko eta beharrezko jarraibide batzuk ezarri nahi ditu. Asmoa izango litzateke bilera egin aurretik protokolo hori antolatzaileei eta/edo parte-hartzaileei bidaltzea. Udalarentzako Zoom kontu bat sortzea ere proposatu du. Gainerako zinegotziek hitza hartu ondoren, protokoloaren proposamena eta Zoom kontu bat sortzea onartu da.

9.-Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta berrogeita hamarrean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.